

Esperientzia berri eta boteretsuen kondentsadore gunea

1.785m [mugaz bestaldeko lehiaketa-gunea] (Iberia 2.0)

Rubén Tapias Cañas

IE University, 2014

Tutoreak: Fernando Rodríguez, Pablo Oriol, Lina Toro




Proposamena Bidasoaren ibai-ahoa kokatzen da, Ipar eta Hego Euskal Herrien mugan. Muga-izaerak, turismoarekin batera, funtzio katalizatzailea bete dezake lurraldeen eraldaketa ekonomikoa, soziala eta ingurumen-mailakoa gauzatzeko.

Zailtasun ekonomiko garaikideen aurrean, espainiar penintsulak Europan duen turismo arrakastatsuen ezaugarriaz baliatzeak interesa duela irizten zaio. Turismoan ohikoa den «eguzkia eta hondartza» formulaz haratago, lurraldearen turismo-eskaintza zabalagoa eta osagarria egituratzea da muga-izaera horretan praktikara eraman nahi dena.

Hondarribiko aireportua ingurumen, gizarte eta ekonomiaren aldetik azpiegitura kaltegarria da. Aireportuaren erabilera desagertu (bideragarritasuna aztertu ostean) eta programa berri bat txertatzea proposatzen da. Programa berriak 1.785 m-ko influentzia-eremua jasoko du, «glokal» eskalan lan egingo duen lotura-sarea kudeatu eta mugiaraziko duen programa, turismo jasangarriaren aldeko apustua.

Gaur eguneko dinamika turistikoak agerian uzten du turismoa ez dela espazioari lotutako industria bat; denboraren menpeko aktibitatea da, ordea. Turistak ez du bisita-lekua ezaugarri sozial, kultural edo ingurumenaren arabera hautatzen. Aldiz, helmuga-lekuaren esperientzia-denbora erosten du turistak, lekuak eskain ditzakeen aktibitate eta esperientzia positiboen kopuruaren arabera. Proiektuaren erronka turismora zuzendurik ez den egitura produktibo baten (aireportua) eta eskaintza turistiko zehatz baten arteko bizikidetzatza lortzea da.

1.785m errealitate horren irakurketan oinarritzen da. Esperientzia berri eta boteretsuen kondentsadore-gune bat erdietsi nahi da. Aisialdirako eskaintza hibrido eta konplexuari espazioa emanez, bertako eta kanpoko turismoaren erakartze-foku bilakatuko da. Muga-lurralde honetan diren balio ekonomiko, kultural eta ekologikoez baliatuko da, epe labur eta luzeko garapen jasangarriaren funtsak beteko dituen proiektua lor dadin. Arestiko aireportua uharte internazional bihurtuko da, abiadurara zuzendutako lehiaketa-esparru gisa berreskuratuz. Bertan



ur-kanalak zabalduko dira arraun, bela eta lehiaketek leku izan dezaten, hala nola aire libreko igerileku berotuak, hegazkin-txikiertzako hangarrak, karst-pista, bizikleta eta patinatzeko guneak... Eta ekintza erakargarri nagusitzat, Formula 1 Sari Handien ospakizunetarako 4.000 m-ko «FIA» homologazioko abiadura-pista bat.

Laburbilduz, 1.785m urte osoan zehar aisialdi eta turismora zuzendutako ekitaldi eta aktibitate programatiko trinko baten agerlekua da. Pertsonak eta ibilgailuak. Teknologia eta natura. Produkzioa eta kontsumoa. Aktibitate eta helburu hauek guztiak elkarrekin eta aldi berean gertatzeko espazioa ahalbidetu da. Proiektua proposamen koherente, errealista eta ordenatua da, lengoia arkitektoniko pertsonalaren bidez garatua.

